



## **EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA (EALZ) ERABILTZeko IRIZPIDEAK**

**Aramaion 2020ko ekainaren 10ean**

### EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROAREN IREKITZEKO PROZESUA

**Ekainaren 15ean** irekitzea aurreikusten da, deseskaladaren 3. fasearen hasierarekin bat datorren egunean.

Hasiera batean, **plazen %50 ekin** irekiko da. Hau da, Gure zentroaren kasuan, aldi berean 4 erabiltzaile egongo dira. Lau pertsonako bi talde sortuko dira. Aste batean talde bat astelehen, eguazten eta barikuan joango da zentrorra eta beste taldea, martitzen eta eguenean. Hurrengo astean alderantziz.

Fase hau gutxienez **15 egunekoa** izango da. Horren ondoren, plazak %50ean mantendu edo %100era igotzea aztertuko da.

### ERABILTZAILEAK

**Erabiltzaileen eta senideen laguntza eta ardura eskatzen da:**

- Erabiltzaile batek COVID-19arekin bateragarria den edozein sintoma duela uste badu, edota berarekin hartu-eman zuzena izan duen familiar edota bere inguruko pertsona batek positibo eman badu, EALZko langileei abisatu, etxean geratu eta osasun zerbitzuek esandakoa egin beharko du.
- Osasun agintaritzak emandako higiene-jokabideen jarraibideak, etxean ere mantentzea gomendatzen da
- Etxetik zentrorra irten aurretik, temperatura-kontrol bat egin eta egiaztatu temperatura ez dela 37,2°C-tik gorakoa.
- Lehen fase honetan ezin da senide eta/edo lagun kanpoko bisitak.

**Zentroan arau orokor gisa, osasun-agintaritzak emandako higiene-jokabideen jarraibideei jarraituko zaie:**

- Eskuak sarritan garbitu, batez ere hurrengo egoeratan (horretarako gel hidro-alkoholikoa egongo da zentroan):
  - o Bazkaldu aurretik eta bazkalostean
  - o Doministiku egin, eztul egin edo zintz egin ondoren
  - o Komuna erabili ondoren
  - o Kutsatuta egon daitezkeen azalerak ukitu edo garbitu ondoren
  - o Zentroan erabiltzen diren materialak erabili edo partekatu ondoren



- Ahal den neurrian, kirurgia-maskara erabili beharko da bi metroko segurtasun-distantzia gordetzen ez den uneetan, adibidez,
- Paperezko zapiak erabili beharko dira, eta ondoren horretarako prestatutako ontzi batera bota.
- kontaktu pertsonala murrizten saiatu, betiere zuhurtziazko segurtasun-distantzia mantenduz.

### ZENTROKO LANGILEAK

#### **Zentroan arau orokor gisa, osasun-agintaritzak emandako higiene-jokabideen jarraibideei jarraituko zaie:**

- Langileak edozein sintoma duela uste badu edota berarekin hartu-eman zuzena izan duen familiar edota bere inguruko pertsona batek positibo eman badu, gizarte zerbitzuari abisatu, etxean geratu eta osasun zerbitzuek esandakoa egin beharko du.
- Kirurgia-maskara erabili beharko dute. Lanaldi bakoitzaren amaieran bota egingo da eta baita beharrezkoa ikusten denean, hezea, zikina, hondatuta badago.... SND/422/2020 Agindua, maiatzaren 19koa, COVID-19 delakoak eragindako osasun-krisian maskara nahitaez erabiltzeko baldintzak arautzen dituena.
- Eskularruak. Ohiko erabilera-argibideetara itzuliko gara.
- Eskuak sarritan garbitu, batez ere hurrengo egoeratan (horretarako gel hidro-alkoholikoa egongo da zentroan):
  - o Elikagaiak manipulatu aurretik
  - o Bazkaldu aurretik eta bazkaldu ondoren.
  - o Doministiku egin, eztul egin edo zintz egin ondoren
  - o Komuna erabili ondoren
  - o Kutsatuta egon daitezkeen azalerak ukitu edo garbitu ondoren
  - o Zentroan erabiltzen diren materialak erabili edo partekatu ondoren
- Erabilitako babes-materiala edukiontzi espezifikoan botatzea
- Zentroa ondo aireztatuta izan osasun gomendioei kasu eginez.
- Zentroa ireki aurretik eta itxi ostean mahaiak, aulkiak, besaulkiak eta erabilitako materiala desinfektatu beharko dira
- Zentroa irekita dagoen bitartean, beharrezkotzat jotzen diren altzariak eta materiala desinfektatzeko konpromisoa hartuko da. Gainera, erabilera bakoitzaren ondoren, komuna desinfektatuko da.
- Erabiltzaile bat ondo ez dagoela ikusten bada, tenperatura hartu eta 37,2C-tik gorakoa bada, familiari deituko zaio etxera eraman dezaten



- Gomendagarria da lehen fase honetan kanpoko bisitak, bolondresak eta txangoak egitea saihestea.

### ZENTROKO ARRETA

- **SARRERA:** Erabiltzaileak sartzeko ordutegiak ezarriko dira, sarreran jende-pilaketarik egon ez dadin. Pertsona bakoitzak erabilera eskusiborako oinetakoak erabiliko ditu zentroan. Maskara eta eskularruak banakako gutun-azal batean gordeko dira, eta langileak arduratuko dira hura manipulatzear, beharrezkoa denean.
- **ALTZARIAK:** Altzariak birkokatuko dira, segurtasun-distantzia bermatzeko. Espazio pertsonalizatuak esleituko dira: bakoitzak bere aulkia eta besaulkia edukiko du.
- **MATERIALA:** Erabiltzaile bakoitzak bere materiala izango du eta egun amaieran desinfektatuko da: arkatza, zorrozkiola, margoak, guraizeak, etb. Bestelako materialei dagokienez (puzzle, tablet, motrizitateko materiala, etb) erabilera bakoitzaren ondoren desinfektatuko dira.
- **JANTZIAK:** erabiltzaile bakoitzaren arropa eta gauza pertsonalak armairuan gordeko dira plastikozko zorrotan sartuta
- **KANPOKO JARDUERA:** Meteorologiak horretarako aukera ematen badu, zentroaren kanpoko aldea erabiliko da jardueraren bat egiteko.
- **IRTEERA:** Zentrotik modu ordenatuan aterako da.

### TRANSPORTEAREN NEURRIAK

#### **Erabiltzaileak:**

- Maskarekin joango dira
- Ibilgailura igo aurretik, eskuak garbitu behar dituzte gidariak duten gel hidroalkoholikoarekin.
- Bidaiarien banaketa: ibilgailuaren berezko ezaugarriek ahalbidetzen duten gehieneko tartea.
- Ibilgailura igotzeko itxaronaldian, gutxienez 2 metroko tartea utziko dute elkarren artean.
- Bidaia bakoitzean hiru bidaiari baino ezin dira joan, eta gidaria eserleku-lerro desberdinetan eta kontrako aldeetan eserita joan behar da.



**Gidariak:**

- Zerbitzua eman aurretik eta ondoren eskuak garbitzea. Urik eta xaboirik ez badago, soluzio hidroalkoholkoa erabili ahal izango da
- Eskularruak eta maskara kirurgikoa erabiliko dira.

**Ibilgailuak garbitzea eta desinfektatzea:**

- Ibilgailuak aireztatu zerbitzu bakoitzaren aurretik eta ondoren.
- Gainazalen eta zoruen garbiketa eta desinfekzioa zerbitzuen artean egingo da, eta hura amaitzean, gainazaletarako desinfektatzaile batekin eta zoruak lixibarekin egingo dira.
- Arreta berezia jarriko zaie eserlekuei, korridoreei, leihoei, heldulekuei, bolanteari, kanbio-palankari, ateei, botoiei, etab.



**SENIDEAK ZAINZTAILE NAGUSIAK EDO/ETA ERABILTZAILEAK ZENTROAK EMANDAKO  
HIGIENE ETA OSASUN ARAUAK BETETZEKO KONPROMISOA**

jaunak/andreak, \_\_\_\_\_ NAN zenbakiduna, EALZ erabiltzaile gisa, eta

jaunak/andreak, \_\_\_\_\_ NAN zenbakiduna, senide edo zaintzaile nagusi gisa,

**ADOSTEN DUTE**

Erabiltzailea Eguneko Arretarako Landa Zentrora (EALZ) itzuli aurretik, senide eta zaintzaile guztiei jakinarazi zaie higie-ne eta osasun neurri batzuk bete behar direla, COVID-19a kutsatzea saihesteko. Dokumentu honen bidez, neurri horiek betetzeko konpromisoa hartu dute.

- Erabiltzaile batek COVID-19arekin bateragarria den edozein sintoma duela uste badu, edota berarekin hartu-eman zuzena izan duen familiar edota bere inguruko pertsona batek positibo eman badu, EALZko langileei abisatu, etxean geratu eta osasun zerbitzuek esandakoa egin beharko du.
- Osasun agintaritzak emandako higie-ne-jokabideen jarraibideak, etxean eta zentroan beteko dira: eskuak sarritan garbitu, etxea eta zentroa aireztatu, segurtasun distantzia mantendu eta hau ezin bada Kirurgia maskara erabili, eta abar.
- Erreferentziako pertsonak prest egon behar du bere senidea jasotzeko, baldin eta EALZ jakinarazten badio sukarra duela eta/edo beste sintomaren bat, osasun-zentrora eramateko.
- Etxetik zentrora irten aurretik, tenperatura-kontrol bat egin eta egiaztatu tenperatura ez dela 37,2°C-tik gorakoa.
- Lehen fase honetan ezin da senide eta/edo lagunen kanpoko bisitak.

Aramaion, 2020ko ekainaren 10ean

Erabiltzearen sinadura	Senide edo/eta zaintzaile nagusien sinadura
------------------------	---